

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Etxebizitza publikoak berreskuratzeko programa Europako funtsak erabiltzeko jardunbide egokitzat jo da

Ekimen horrekin, 21 etxebizitza berri dira behar handiko egoeran dauden pertsonen erabil ditzaten

Martes, 28 de abril de 2015

Erabilera sozialerako titulartasun publikoko etxebizitzak berreskuratzeko programa Sustapen Departamentuaren mende dagoen Nasuvinsa sozietate publikoak abiarazi zuen, 2014 an. Programa hori EGEFek kofinantzatutako jardunbide egokitzat jo da. Ekimen horrekin, 21 etxebizitza berri dira, 586.000 euroko aurrekontuarekin; kopuru horren % 50 EGEF funtsak finantzatu dute aldi baterako, bizitzeko irtenbide modura emateko etxebizitza-beharraren egoeran dauden pertsonen eta ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.



San Jorgeko bidezainen etxebizitzak.

Proiektu hori jardunbide egokitzat jotzeko arrazoiak honako hauek izan dira: onuradunen, onuradunak izan daitezkeen eta oro har publikoaren arteko zabalkunde zabala; elementu berritzaileak jasotzea arazoa aztertzeke eran; proiekturako erabilitako EGEF funtsen balio erantsia; eskualdeko ahuldade zehatz batzuk arintzen laguntzea; estaldura-maila adierazgarria Nafarroako biztanleengan; plangintzan eta egikaritzean aukera-berdintasun eta ingurumen-iraunkortasuneko irizpideak aintzat hartu izatea; eta osagarritasun bat izatea jarduteko beste tresna batzuekin.

Programa horren hartzaileak Nafarroan erroldatutako adinez nagusiak diren pertsonak dira, etxebizitza libre edo babestutakoak eskuratu ezin dutenak, eta ondorengo egoeraren batean daudenak: etxebizitza galdu izana etxegabetzeagatik edo etxea galtzeko arriskua dutenak negoziatzeko ohiko prozesuak agortu ondoren; bere osasun fisiko edo psikologikoa arriskuan izanik etxebizitza batean bizitzen direnak, edo pertsona edo familia-unitate bat izatea babestutako edo ikuskatutako etxebizitza batean bizi den berreskuratze-prozesu baten azken etapetan. Onuradunek Gizarte Politiken Departamentuak prestatutako programa batean sartzeko konpromisoa hartzen dute; programa horrek, hiru urteko epean behar besteko autonomia lortzen lagunduko die laguntza sozialetik

askatzeko eta beste etxebizitza batean sartzeko.

Proiektua 2014ko urrian hasi zen [San Jorgeko auzoko bidezainen hamabost etxebizitza](#) kudeatuz; horren ondoren, [Nasuvinsa sozietate publikoko beste sei etxebizitza](#) gehitu ziren.